

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005ko urtarrilaren 14a / 611. zenbakia



**JOSE MARI
ZEZEAGA**

Pilotan jarraitzeko
gogoz eta indarrez

GIZARTEA: 600 ETORKIN INGURU DIRA BERGARAN/4 • KULTURA: ORGANO EMANALDIA SAN PEDRON/12

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIA: ASPEPELOTA.COM

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 14**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15
- ZAPATUA, 15**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- DOMEKA, 16**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 17**
ZABALA. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- MARTITZENA, 18**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 19**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- EGUENA, 20**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anibulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa. 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa. 943 76 62 46
- Ertzaintza. 943 53 47 20
- Osasun etxea. 943 76 24 40
- Asepeyo. 943 76 16 43
- Pakea. 943 76 13 49
- Angiozarko medikua. 943 78 90 27
- Antzuolako medikua. 943 76 62 23
- Odol emaleak. 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak. 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak. 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea. 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea. 943 76 62 46
- Udal Artxiboa. 943 77 91 32
- Igerilekuak. 943 76 20 51
- Kultura etxea. 943 77 91 58
- Liburutegia. 943 77 91 62
- Kirodegia. 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza. 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitzegia. 943 76 14 92
- Erregistroa. 943 76 13 15
- Jardun. 943 76 36 61
- Idolaz. 943 76 65 08
- Erretiratuena etxea. Bergara. 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuena elk. 943 76 62 71
- Postetxea. 943 76 26 85
- Bedelkar. 943 76 04 68
- Akulu AEK. 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia. 943 76 44 53
- Bergarako notariotza. 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|---|
| San Pedro
Domekak: 09:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00. |
| Santa Marina
Zapatuak: 19:00.
Domekak: 13:00. | San Lorentzo
Zapatuak: 20:00. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30. | Angiozar
Domekak: 11:00. |
| Osintxu
Domekak: 12:00. | Moja Zaharrak
Lanegunak: 08:00. |
| Elosu
Domekak: 11:00. | Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | Antzuola
Domekak: 10:00; 11:30. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan, 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean.

OHARRAK

BAI EUSKAL HERRIARI TALDEAREN MARISKO JANA
Bergarako Bai Euskal Herriari taldeak abenduaren 31n egindako zozketan 3.619 izan da saritutako zenbakia. Txartelaren jabeak marisko jana jasoko du.

TXAPAKO KALABAZA
Gabonetan Txapa Irratiak eginiko zozketan Miren Arrillaga izan zen irabazlea. Hura hurbildu zen gehien kalabazaren pisua asmatzean. 12,215 kiloko pisua zuen kalabazak. Etxagi jatetxean bi lagunendako afaria eskuratu zuen Mirenek. Laguntza eman zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkie Txapak.

ETXEBERRIAKO ZOZKETA
Etxeberria erlojutegiak egindako zozketan 1.500 euroko saria suertatu zaio 255 zenbakiaren jabeari.

1966AN JAIOTAKOAK
1966an jaioetako afaria urtarrilaren 29an. Izenematea (10 euro aurrez) Ariznoa tabernan, urtarrilaren 24ra arte. Afari egunean bertan elkartuko dira, 19:30ean.

1956AN JAIOTAKOAK
1956an jaioetako afaria urtarrilaren 29an Zabala jatetxean, 21:00etan. Izenematea Zabala jatetxean bertan (943 76 20 07 telefonoa) egin daiteke, hilaren 23ra arte.

JARDUNEN AGENDA

ASTE BUKAERAKO EKITALDIK
Aste bukaeran Txapligu edo Txiskrilabi taldeetan parte hartzeko interesa duten gaztetxoek Jardunen eman dezakete izena. Argibideak: 943 76 08 19.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoibia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERGARAN


Ruandaren aldeko elkartasun espedizioa, etxean

Ruandaren aldeko elkartasun espedizioa Bergarara iritsi zen 1995eko urtarrilaren 11n. Txakur leren laguntzarekin, Axen Gari-tanok eta bere lagunak 1.000 kilometro inguru egin zituzten Hego Euskal Herrian, abenduaren 11n hasita. Hilabeteko epean 4 milioi pezeta batu zituzten Ruandan kalte-tutakoen alde.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Jirau"



Manejau.
— *Nundik jirau dok txaketa hori.*

JON IRAEGI

ASTEKOPELIKULAK

'MARIA LLENA ERES DE GRACIA'

ZUZENDARIA: JOSHUA MARSTON. **AKTORE-
AK:** CATALINA SANDINO, YENNY PAOLA.

HARIA. Catalina Sandinok interpretazio saria jaso zuen Berlinen, Estatu Batuetara emigratzearen edozer gauza egiteko gertu dagoen kolonbiar gaztearen papera egiteagatik.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

'POLAR EXPRESS'

ZUZENDARIA: ROBERT ZEMECKIS. **AKTORE-
AK:** TOM HANKS.

HARIA. Robert Zemeckis zuzendaria eta Tom Hanks aktorea berriro elkarlanean, *Forrest Gump* edota *Naufrago* filmetan egin zuten bezala. Ume bat Ipar Polara abiatuko da tren batean, eta hainbat abentura bizi izango ditu. Efektu berezi aipagarriak dituen filma.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan 17:00etan eta 19:30ean; domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

HAUGIROA!

MINIMOA **-3 °C**
Astelehena, 10

MAXIMOA **15 °C**
Egubakoitza, 7

ASTEKO EURIA (l/m²) **0,8 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 5	10 °C	0 °C	0,3 l/m ²
Eguena, 6	12 °C	2 °C	0,5 l/m ²
Egubakoitza, 7	15 °C	4 °C	- l/m ²
Zapatua, 8	12 °C	-1 °C	- l/m ²
Domeka, 9	12 °C	-3 °C	- l/m ²
Astelehena, 10	11 °C	-3 °C	- l/m ²
Martitzena, 11	12 °C	-3 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

'LA HISTORIA DEL CAMELLO QUE LLORA'

ZUZENDARIA: BYAMBASUREN DAVAA, LUIGI FALORNI. **AKTOREAK:** JANCHIV AYURZANA, CHIMED OHIN, AMGAABAZAR GONSON.

HARIA. Mongolian girotutako film honek hango nomaden bizimoduaren berri ematen digu. Familia bateko seme-alabak musikari baten bila aterako dira, etxeko gamelu bati lagun diezaion...

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, urtarrilaren 20an, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



Musika eta liburuak



Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

ATREBENTZIAEZPADA/ Baduzu joerarik merkealdietan erosketak egiteko?



LOLI PEREZ
47 urte



BEGOÑA AGIRREBEITIA
62 urte



PURA CORCHERO
65 urte



JOSE LUIS MARTINEZ
32 urte



VICENTE MARTINEZ
52 urte



MARIA ANGELES TXURRUKA
65 urte

Bai, merkealdiak aprobetxatzen ditut lehendik zerbaiti begia botata izanez gero erosteko. Hemen Bergaran erosten ditut gauzak, baina batzuetan Gasteizera edo Bilbora ere joaten gara.

Pikatzen dut eta zerbait erosi, baina gutxitan. Merkealdietarako joerarik ez dut izaten. Gehienetan zerbait behar dudanean erosi egiten dut, merkeago ipintzeko itxaron beharrean.

Ez naiz sekula merkealdietara joatearen zale izan. Zerbait behar dudanean erosten dut eta kito. Beharrezko ez badut, berriz, zertarako erosi, eroste hutsarengatik soilik?

Bai, normalean erosten ditut gauzak merkealdietan. Bai herrian zein kanpoan interesatzen zaidan zerbait salgai ikusiz gero, merkeago badago orduan aprobetxatzen dut erosteko.

Ez, ez naiz merkealdietara joaten. Emaztea inoiz joaten da, baina hura ere gutxitan. Ni ez naiz zain egoten merkealdiak noiz hasiko. Gauzak beharrezko ditudanean erosten ditut.

Ez, ez dut merkealdietan erosten. Hala ere, erakuslelhoan zerbait gustukoa ikusiz gero aprobetxatzen dut. Baina zaila izaten da merkealdietan nork bere neurriko gauzak aurkitzea.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK HERRI GIROA SUSPERTZEN DABILTZANEI Bergaran herriko giroa suspertzeko lanean diharduen taldeko kideak txalotu nahi dituzte herritar batek. Errege bezperan egindako ekintzek giro polita sortu zutela esan digu irakurle horrek. "Antolatutako jolasak eta txokolata zein txorizoa banatzeko ideiak oso onak izan ziren. Animatu nahi nituzke aurrerantzean ere horrela jarraitzeko". //A.

ETABARRUAN...

ASTEKO /5

KIROLA /8

KULTURA /12

Liburutegiko txartel berriak

EAEko katalogo bateratua da Udal Liburutegia. Txartel berriak banatuko dituzte asteleheneretik.

Gazteak, igoera fasera

Bergara KEko gazteen bigarren mailako futbol taldea igoera fasea jokatzeko sailkatu da.

Amodiozko gutunak

Partaide asko izan da Jardun ek antolatzen duen Amodiozko Gutunen Lehiaketan: 72, hain zuzen ere.

ASTEKODATUA

72

AMODIOZKO GUTUN JARDUNEN LEHIAKETAN

Urtarrilaren 7an amaitu zen Jardunek antolatutako Amodiozko Gutunen Lehiaketan lanak aurkezteko epea. Guztira, 72 gutun jaso dituzte. Sari banaketa San Valentin egunean egingo dute.

BESTEKEESANA

“ Pare bat konpromiso nituelako ezin izan nintzen joan Eibarrera eta Sestaora. Baina aulkian enpresako bi arduradun egon ziren, pilotarien bi lagun: Maiz Astelenan eta Muntion Sestaon. Biakai dira gure bikoteei aholkuak emateko. Gainera, berdin da bata ala bestea egon. Partiduak irabazten dituztenak pilotariak dira.”
JOKIN ETXANIZ /
Aspeko zuzendari teknikoa
‘El Diario Vasco’/05-01-11

“ Hau antzezlan abstraktuagoa da aurrekoaren aldean. Izan ere, Oteizaren gogoeta eta sentimenduak dira gure gaia, eta batzuetan metafisikaren alorrean ere sartu zen Jorge.”
MIREIA GABILONDO /
Antzerki zuzendaria
‘El Diario Vasco’/05-01-12

BERAIEKDIÑOĒ/ Aitziber Azkondo



Arrazistak omen gara...

Horrela dio behintzat astelehenean argitaratu zen Inmigrazioaren Euskal Behatokiak eginiko ikerketak. “EAEko herritarren gehiengo, %71, Afrikatik, Asiatik, Latinoamerikatik eta Ekialdeko Europatik datozen etorkinei sarrera librea mugatzearen aldekoa da”. Kultura aniztasunaren aldekoa gara baina ez dugu nahi etorkinik gure artean, nola ulertzen da hori?

“Gizaki guztiak berdinak dira, arraza, sexu edo erlijio bereizketarik egin gabe” esan zuen Abraham Lincoln-ek. Gaur egun, esaldi hau mundu osoko konstituzio guztietan aurkituko dugu.

Orditik gaur arte, herri, nazio eta kontinente osoek, askatasuna lortu dute, beste askok ez ordea.

Gizarteek oso oroimen txarra dutela esaten da maiz eta badirudi gurea ere ez dela salbuespen bat. Nik ez diot nire herriari gure kultura edo

historia ahaztea eskatuko. Ez diot ezta herri zapaldua eta zigortua izan garela ahazteko eskatuko. Inondik inora. Gure diskriminatuak izan gara hainbat arlotan. (100 urte baino gehiago dira dagoeneko). Ba jaun-andreok hori ere arrazakeria da. Arrazakeria diskriminazio era bat da.

“Bere herria eta lurra uzten duenak ez du nahi duelako egiten baizik eta behar duelako”

Gutariko bakoitzak, ni neu barne, era natural eta ohiko batean bereizketarik ez egitera iritsi bitartean ez dugu gizateriaren benetako askatasuna lortuko.

Bere herria eta lurra uzten duenak ez du nahi duelako egiten baizik eta behar duelako. Bizirauteko beharrak bultzatuta, askatasun bila edota bere ametsak bete nahian ama lurra uzten du.

Honako gogoeta egingo nuke nik: nola nahi dugu aske sentitu guk geuk ez badugu askatasuna eskaintzen? Ez nahiz Euskal Herriaren askatasunaz ari, baizik eta gizabanakoaren askatasunaz.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegi
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elepuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala



Ongizate zerbitzuaren datuen arabera, biztanleriaren %4 etorkinak dira Bergaran.

ARTXIBOA

GIZARTEA/ Bergaran 462 etorkin daude erroldatuta, kopuru erreala handiagoa den arren

Etorkinen gaineko azterketa plazaratu du Udalak

EDU MENDIBIL

Etorkinen inguruan gaur egun herrian dagoen errealitatea ezagutzeko dokumentua aurkeztu du Bergarako Udalak. Integrazio prozesuan bai udalerrriak bai etorkinek dituzten beharrei erantzun egokia emateko helburuarekin egin da aipatutako lana.

Besteak beste, Bergaran dauden baliabideen azterketa eta atzerrik etorkinaren populazioaren azterketa egin dute Maite Muxika psikopedagogia ikasleak eta Jon Lopez Udaleko Gizarte teknikariak. Txostena hainbat zatitan egitaratuta dago. Besteak beste, etorkinek gure herrira etortzeko dituzten arazoak, Bergarako inmigratioaren datuak, egoera legalaren arabera etorkinek zerbitzuak erabil-

tzeko duten aukera edota hobekuntza proposamenak jorratu dituzte egileek.

INTEGRAZIOARAKO URRATSAK

Txostenean aipatzen den moduan, nazioarteko immigrazioa azken urteetan Euskal Herrian izan dugun fenomeno garrantzitsuetariko bat da. Garrantzitsua izateaz gain, fenomeno nabarmena bilakatzen ari da. Gure herrian ere kalean gero eta atzerrikar gehiagorekin egiten dugu topo. Arantzazu Amasorrain Udaleko Ongizateko batzordeburuaren arabera, biztanleriaren %4 etorkinak dira Bergaran. Gehiengoa Pakistandik (72 lagun), Portugaldik (58) eta Marokotik (51) etorri da. Hala ere, etorkinen gehiengoa Europako herrialdeetatik etorritakoa da. Bestalde, gizon eta emakume kopurua nahiko antzekoa da: 203 emakume eta 258 gizo-

nezko etorri da Bergarara.

Bestalde, etorkinak gure gizartean era egokienean integratzeko proposamenen artean, Udaleko zerbitzu edo departamentuen arteko koordinazioa eta elkarlana gehitzea aipatzen du txostenak. Era berean, etorkinendako Harrera Plan bat eratzea komenigarria litzatekeela esaten da, "dituzten zailtasunen aurrean laguntza eta orientazioa eskaintzeko, eta ahal bada, dituzten arazo eta zailtasunei irtenbideren bat aurkitzeko".

Amasorrainek zera adierazi digu: "Herriak etorkinei eskaintzen dien zerbitzuen diagnostia egin nahi izan dugu, euren beharrei erantzuteko helburuarekin. Errealitate berrira moldatu beharra dugu guztiok".

Txosten osoa eskuratzeko ondoko helbidera jo dezakezue: <http://www.bergara.es/News>.

Saharar herriari laguntzeko kanpaina deitu dute

E.M.

Aurreko urteotan bezala, Bergarako Udalak eta Komite Internazionalistak taldeak Sahararako laguntza kanpaina deitu dute. Diruaz gain, atuna oliotan, azukrea edota konpresak batuko dituzte urtarrilaren 19ra arte.

Elikagai dendetan, herriko ikastetxeetan eta Udaltzaingoa jaso dituzte aipatutako produktuak. Behin Gipuzkoan batutako material guztia jaso ondoren, Tindouf-en (Aljeria) dauden errefuxiatu sahararren kanpamentuetara eramango dute. Janaria eramango duen karabana otsailean aterako da Sahara aldera.

Udaleko zein Komite Internazionalistak taldeko ordezkariak aurrekoetan laguntza kanpainak jaso izan duen erantzun bikainari eusteko itxaropena azaldu zuten. Dirulaguntzak jasotzeko bi kontu zabaldu dituzte, bata Kutxan (2101 0070 86 0114795568) eta bestea Euskadiko Kutxan (3035 0080 94 0800054177).

Jasotako dirua errefuxiatuek behar dituzten ibilgailuak erosteko bideratuko dute.

Euskal Fondona, Saharar Errepublikari Arabiar Demokratikoaren Lagunen Elkarteak eta Fronte Polisarioak sahararrek jasaten duten elikagai-krisia gogora ekarri dute. Egoera larriagoa da Nazio Batuen Erakundearen laguntza murriztu zutenetik. Nazioarteko laguntza beraz ezinbestekoa da saharar herrialdeak aurrera egiteko. 170.000 lagun inguru bizi dira gaur. Tindouf-etik gertu dauden kanpamentuetan.

ERAKUSKETA KULTURA ETXEAN

Komite Internazionalistak taldearen eskutik, Sahara iruditan izenburuko erakusketa ikusgai izango da Kultura Etxean, urtarrilaren 19ra arte. Aste barruan 18:00etatik 21:00etara eta zapatuan eta domekan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara izango da zabalik Errotaldeko erakusketa aretoa. Argazkien bitartez, saharar herrialdeak bizi duen egoera ezagutzeko aukera dago.



Pilar Murgoitio 100 urte egin ditu

Pilar Murgoitio Gabilondo bergararrak 100 urte bete zituen joan den urtarrilaren 14an. Familiarteko eta lagunaren bisita jaso zuen Pilarrek Mizpirualde egoitzan eta Victoriano Gallas-tegi alkatearengandik eta San Joxepe elkartearengandik opariak jaso zituen. Mizpirualdeko lagunek, berriz, lore sorta eder bat eta tarta bat opari egin zizkioten. Damian Azkarateren alarguna, osasun aldetik primeran dago Pilar. Eutsi, beraz, eta zorionak! /ARGAZKIA: JUAN ANTONIO MIGURA.



▶ margo orokorra
 ▶ margo dekoratiboa
 ▶ umeentzako dekorazioak
 ▶ feng shui estudioak
 ▶ bidrierak

margolan
m a r g o a k

Sagasta auzoa Z^a 5-3D
20577 ANTZUOLA-HERNANI
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955
687 570 777

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Dietetika eta Nutrizio Kontsulta

- Osasun arazoak
- Balorazio nutrizionala
- Dieta pertsonalizatuak

- Etxez-etxe zerbitzua
- Ikastaroak

(...)

mireia alberdi
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

(t) 943 76 60 45
(s) 646 43 34 58
(e) mireialber@euskalnet.net

Ibargarai 44 BERGARA
(t) 943 76 73 43

Olaran etxea, herriko plaza 3
20577 ANTZUOLA

KULTURA/ Euskal Autonomia Erkidegoko katalogo bateratuan integratuko da liburutegia

Liburutegiko txartel berriak, datorren astetik aurrera

E.M.

Bergarako Udal Liburutegia Euskal Autonomia Erkidegoko Liburutegien katalogo bateratuan izango da aurrerantzean. Liburutegiko bazkideei txartel berriak banatuko zaizkie datorren astetik aurrera, eta Internetetik kontsultak egin ahal izango dituzte.

Txartel berriarekin, Udal Liburutegiko bazkide bakoitzak bere pasahitza izango du Internet bitartez kontsultak egin ahal izateko. Horrela, beste liburutegietako fondoetara jo ahal izango dute kontsultak egiteko edota liburuak maileguan hartzeko. Ondoko helbidera jo beharko dute: www.euskadi.net/katalogobate-tua. Bergarako Udal Liburutegia arduratuko da beste liburutegietatik maileguak ekartzeaz, bazkideek hala eskatuz gero. Donostia eta Bilboko udal liburutegiak ezik, EAEko udal liburutegi guztiak integratuko dira katalogo bateratuan.

1.800 ERABILTZAILA INGURU

Esan bezala, Bergarako Udal Liburutegiak datorren astetik banatuko dizkie txartel berriak bazkideei. Gaur egun 3.200 bazkide inguru dituzte. Hala ere, erabiltzaileak 1.800-2.000 omen dira.

Txartel berria jasotzeko Udal Liburutegira jo beharko dute interesatuek. Gabonen ostean ohiko ordutegiari eutsi dio liburutegiak: aste barruan 09:00etatik 21:00etara eta zapatutan 09:00etatik 13:00etara izango da zabalik.



Errotaldeko Udal Liburutegian 16.000 bolumen inguru dituzte.

Mila Agirrezabal, Amaia Aldai eta Igone Basabek dihardute bertan lanean. Debagoieneko udal liburutegiek *Neguko gida* kale-ratu berri dute, adin guztietako irakurleendako hainbat titulu gomendatuz. Diskoak eta DVDak ere badira bailarako udal liburutegien eskaintzan.

Udal Liburutegian 16.000

bolumen inguru dituzte. Liburuez gain, CDak eta DVD zein VHS formatuan grabatutako filmak eta bestelako saioak eskuragarri daude bazkideendako. Liburutegia txiki geratu da aspaldi. Dua urte batzuk, Udalak liburutegia Arrizurira eramateko proiektua aztertu zuen baina oraingoz proiektua geldirik dago.

KOLEKTOREKOOBRAK



Infernukuako pasoa itxiko dute astelehenean

Astelehenean Infernukuako pasoa itxiko dute, Zubietan eta Masterrekan ur kolektoreko lanekin aurrera egin behar dute eta. Beraz, Kruz Gallastegitik Frontoi aldera jo beharko dute gidariak eta handik Zurraderotik Ibargaraira edota Zurraderoko zubitik Matxiategira joateko aukera izango dute. Masterreka kalea azaroaren erdialdea ezker dago itxita ur kolektoreko lanengatik.

KRUZ GALLASTEGIKO GARAJEAK, ITXITA

Udaltzaingoak aditzera eman duenez, datorren astean Kruz Gallastegin diren garajeetarako pasoa itxiko dute. Bordatxo elkartearen ondoan sarrera duten garajeetara ezin izango da sartu. Udaltzaingoak garaiz abisatuko die hor garajea dutenei zein egunetan egongo den itxita aipatutako pasoa.

IRIZAR KALEA KONTRAKO NORANZKOAN ETA KRUZ GALLASTEGI ITXI

Kruz Gallastegi kalea ere itxi egingo dute eta Eroski eta Biko tabernaren ondoan garajeak dituztenek kalean gora irten beharko dute Irizar kalera, kontrako noranzkoan. Irizar kalean ere aldatuko dute noranzkoa, goitik beherako noranzkoan, hain zuzen, Fraiskozuri aldera joateko.

ZIRKULAZIO SEINALEAK ERRESPELATU

Udaltzaingoak jarritako behin-behineko seinaleak errespetatzeko eskatu nahi die gidariei.



Bi agente berri Bergarako Udaltzaingoa

Abenduaren amaiera ezker Iker Ibaguren bergararra eta Otxandioko Lander Urigoitia udaltzain lanetan dira Bergaran. Arkauteko akademian ikastaroa jasotzen jardun dute iraila ezker, eta esan bezala dagoeneko lanean dira herriko kaleetan. Gaur egun 14 udaltzainek dihardute Bergaran, eta horietatik bi emakumeak dira.

Ume txikiak dituzten gurasoei zuzendutako ikastaroak

E.M.

Gehixago eta hobeto programaren barruan, ume txikiak dituzten gurasoei zuzendutako kantu-jolasen ikastaroa eta ipuin ikastaroa iragarri ditu Udaleko Euskara Zerbitzuak. Izenematea zabalik dago.

Kantu-jolasen ikastaroa otsailaren 10etik aurrera izango da. Seme-alaben eta gurasoen arteko lotura sendotzea helburu badu ere, zaintzaile, begirale eta interesa duten guztiek parte hartzeko aukera izango dute. Ordu eta erdiko zortzi saio izango dira aste barruan, martitzen edo eguenean. Orduetgia partaideen arabera zehaztuko da. Ana Carpintero izango da irakaslea eta saio teoriko eta praktikoak izango dira, euskaraz edo gaztelaniaz.



Kantu-jolasen ikastaroaren ostean, gurasoei zuzendutako ipuin ikastaroa izango da.

IZENEMATEA, HILAREN 21ERA ARTE

Izena emateko epea urtarrilaren 21era arte izango da zabalik Euskara Zerbitzuan, 943 77 91 66 telefonoan. Apirilean Peio Añorgak

zuzenduko duen ipuin ikastarorako izena ematea ere bertan egin daiteke. Ipuin ikastaroa euskaraz izango da. Eta ikastarook doan dira.

EUSKARA/ AEK, Udal Euskaltegia eta Euskara Batzordearekin batera *Merezi du!* kanpaina aurkeztuko dute eguaztenean

Jardun euskara elkarteak hasi da prestatzen dagoeneko 15. urteurreneko ekitaldiak

E.M.

Maiatzean 15 urte beteko dira Jardun euskara elkarteak sortu zutenetik. Jarduneko zuzendaritza hasi da dagoeneko urteurrenari begira ekitaldiak prestatzen. Urteurrena heldu bitartean hainbat egitasmo ditu eskuartean Jardunek.

Urtarrilaren azken astean herritarrak euskara ikastera animatzeko burutuko den *Merezi du!* kanpaina aurkeztuko dute hurrengo astean. Jardun elkartearekin batera, Akulu AEK, Udal Euskaltegia eta Udaleko Euskara Batzordea dira kanpainaren bultzatzaileak. Herritarrak euskaraz egitera animatzea izango da kanpainaren helburua eta horretarako diptikoak banatuko dituzte etxez etxe.

GAZTETXOENDAKO EKITALDIAK

Bestalde, Debagoieneko gainerako euskara elkarteekin eta Goienarekin batera antolatutako *Baneki* gazteendako lehiaketa otsailean jarriko dute abian. 12-16 urte bitarteko gazteek parte



Maiatzeko ospakizunak heldu bitartean hainbat egitasmo eskuartean ditu Jarduneko zuzendaritzak.

hartu ahal izango dute lehiaketan eta astero bi talde lehiatuko dira GOITBko platoon.

Era berean, gaztetxoei zuzendutako aisialdia eskaintzaren

barruan, zapatuetan Txiskrilabi eta Txapligu taldekoak elkartzen dira. Txiskrilabin 12-16 urte bitarteko gaztetxoek dihardute eta Txapligun, berriz, 9-11 urtekoek.

Bestalde, urtarrilaren 28tik martxoaren 18ra gitarra ikastaroa izango da Jardunen eskutik. Egubakoitzetan izango dira eskolak, 19:00etatik 20:30ak arte.

LABUR

Aralarren oharra kalean azaldutako kartelak direla eta

Bergara Aurrerako ordezkarien legez kanporatzea dela eta azaldutako kartel eta pintaden aurrean, Aralarrek zera adierazi du: talde politikoei eginko kritika onartzen dutela baina ez ai hau dela eta pertsona konkrituak iraindu eta mehatxatzea. "Gai honi dagokionez beraien talde politikoen jarrearekin bat ez gatozen arren, Igor Oiarbide eta Iñaki Zabalarri gure elkartasuna adierazi nahi diegu" dio oharra.

Aratuste egunak oker Euskara Zerbitzuko egutegian

Udaleko Euskara Zerbitzuak jakitera eman duenez, kaleratu berri duten 2005eko egutegian akats bat dago. Izan ere, aratusteetako egunak gaizki jarrita daude: otsailaren 19tik 22ra izan beharrean, otsailaren 5etik 8ra ospatuko dira aratusteak.

Udaleko Euskara Zerbitzuak barkamenak eskatu nahi ditu hutsegiteak ekar ditzakeen endredoengatik.




Kirol Elkarte Berriak
Kirol Elkarte
Boni Laskurain 3 • BERGARA
Tel.: 943 76 35 71

ORDUTEGIA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	AZTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
7:30	STEPSA (M ^a Isabel)	MANTENIMENTUA (M ^a I)	AEROBIKA (M ^a Isabel)	BODY-GIMA (M ^a Isabel)	STEPSA (M ^a Isabel)
8:15	STEPSA (M ^a Isabel)	PILATES (M ^a Isabel)	AEROBIKA (M ^a Isabel)	BODY-GIMA (M ^a Isabel)	STEPSA (M ^a Isabel)
9:00	AEROBIKA (Rosa)	MANTENIMENTUA (Luis)	BODY-GIMA (Rosa)	MANTENIMENTUA (Luis)	STEPSA (Rosa)
10:00	AITONAK	SPINNINGA	AITONAK	SPINNINGA	AITONAK
14:30	PILATES (M ^a Isabel)	MANTENIMENTUA (Luis)	BODY-GIMA (Luis)	MANTENIMENTUA (Luis)	PILATES (M ^a Isabel)
15:00				TAI-CHIA (Sonia)	TAI-CHIA (Sonia)
16:00				PILATES (M ^a Isabel)	STEPSA (Oihane)
17:00	STEPSA (Oihane)	PILATES (M ^a Isabel)	AEROBIKA (Oihane)	PILATES (M ^a Isabel)	STEPSA (Oihane)
18:00	KARATEA (Luis)	ZIRKUITUA (Oihane)	KARATEA (Luis)	STEPSA (Oihane)	KARATEA (Luis)
19:00	BODY-STEPSA (Gema)	SPINNINGA (Luis)	AEROB./STEPSA (Oihane)	SPINNINGA (Luis)	CAPOEIRA (Bormay)
20:00		KARATEA (Luis)		KARATEA (Luis)	
20:30	STEPSA (Oihane)		BODY-GIMA (Gema)		
21:00		SPINNINGA (Luis)		SPINNINGA (Luis)	

- **LARUNBATETAN:** Defentsa pertsonala 10,00etatik 11,30era. Patxi Escribano Lasa / Zigor
- **MUSKULAZIOA GELA:** Astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan, 07:00etatik 22:00etara.
Astearteetan eta ostegunetan, 07:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 22:00etara.

Ordutegi zabalagoa izateko aukera.

MINGAINARITIRAKA



Hodei Elexpuru

LAINO DENDAKOA

Urrian zabaldu zuen Hodeik Laino skate eta snow denda. Eskiatzeko materiala saltzen du hantxe. 22 urte ditu Hodeik eta aspalditik dauka eskirako zaletasuna. Orain, baina, eskia baino nahiago du *snowboard*-a.

Zeu Hodei eta jarri duzun denda, berriz, Laino. Zelatan jarri zenion izen hori?

Errazera jo nuen; dendari izena jarri behar eta ez zitzaidan ezer bururatzen. Laino izena jartzea bururatu eta horixe egin nuen.

Eskia zaletasuna ala bizioa da?

Biak; batzuek zaletasuna da eta beste batzuek, berriz, bizioa. Dena dela, probatzen duenak segitu egiten du, eskia *engantxatu* egiten du.

Lehen *pijo*en kirola zen; esaten duten bezain garestia da?

Bai, garestia da, baina, gaur egun, diru hori ez daukate *pjoek* bakarrik; hamar lagun gela baten egotea ez dut uste *pjoena* denik, eta jende asko egoten da horrela.

Nora joaten zara eskiatzera?

Ni Astunera joan izan naiz, gehienbat, baina ez da onena.

Sarritan joaten zara?

Iaz, astebururo joaten nintzen, baina, denda jarri dudantetik, ez daukat denborarik. Aurten, behin bakarrik ibili naiz eskiatzen.

Nora joan nahiko zenuke eskiatzera?

Suitzara, Alpetara.

Azkeneko urteotan, *snowboard*-a jarri da boladan.

Bai, geroago eta jende gehiagok aukeratzen du.

Zeuk zer nahiago duzu?

Snowboard-a; eskiatzea baino errazagoa eta dibertigarriagoa da. Eskiatzeaz aparte, denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Lagunekin egotea eta, denbora daukadanean, patinetean ibiltzea; kalean ibili behar izaten dugu. Ia noiz egiten duten *skate park*-a.

Bizitzeko toki bat?

Bergaran gustura bizi naiz, baina seguru nago badaudela toki hobeak ere.

Eta oporretarako?

Aldiro toki ezberdin batera joatea gustatzen zait, toki berriak ezagutzea; ez zait inporta nora joan.

Bukatzeke, amets bat?

Pozik bizi izatea.

AINTZANE IRIZAR

KANPOTARRAKBERGARAN

CRISTOBAL CALUÑA

48 URTE / EKUADORTARRA / ORAIN DELA LAU URTE ETORRI ZEN BERGARARA BIZI IZATERA

“Hiru seme-alabak Ekuadorren bizi dira, baina espero dut gutxi barru etorriko direla”

AINTZANE IRIZAR

Orain dela sei urte irten zen Cristobal Ekuadorretik, eta Azpeitira etorri zen. “Gogorra izan zen emaztea eta hiru seme-alabak Ekuadorren laga eta etortzea, baina hango egoera ez zen bate-re ona eta etorri beharra izan nuen”, gogoratzen du Cristobalek. “Orduan nire familiari agindu nion bi urtetik behin, gutxienez, eurak bisitatzera joango nintzela, eta promesa hori bete dut”, gaineratu digu. Bere koinatuarekin etorri zen, baina, behin Euskal Herrira iritsita, bakoitzak bere bideari ekin zion.

Cristobal, artzain lanetan hasi zen Azpeitiko baserri baten. Zazpi hilabete egin zituen hantxe. “Han nengoela, lagun batzuk egin nituen, eta eurek lagundu zidaten beste lan bat topatzen; eurei esker lortu nuen oraingo lanpostua, Bergaran”, azaldu digu.

Bolubarri baserrian dihardu lanean ordutik, orain dela ia lau urtetik. “Izugarri lagundu zidaten lagun horiek, beti eskertuko diet nihatik egin zuten guztia; Bolubarrikoak ere hasiera-hasieratik oso ondo portatu ziren nirekin; eurei esker lortu nituen paperak”, adierazi digu. Oso gustura dihardu baserriko lanetan: “Ekuadorren ere nekazaria nintzen, eta niretako lan ezin aproposagoa da baserrikoa; negutegietan barazkiak jasotzen, produktuak banatzen, pisatzen... denetik egiten dut”, diosku Cristobalek.

SEME-ALABAK EKUADORREN

Seme-alaben hutsunea nabaritzen du; emaztea orain dela bi urte etorri zen Bergarara. Etxe baten lan egiten du, pertsona nagusi bat zaindu eta etxeko lanak egiten.

Hiru seme-alaba dituzte, baina Ekuadorren bizi dira, Cristobalen arreba batekin. Zaharrenak 20 urte ditu eta gazteenak, berriz, 15. Bi gazteenak laister etorriko dira Bergarara bizi izatera. “Paper kontuetan nabil eta hila-bete gutxi barru etortzeko

“Gogorra izan zen emaztea eta hiru seme-alabak han laga eta Euskal Herrira etortzea”

moduan izango direla espero dugu; alaba zaharrenak ez du etortzerik nahi, ikasketekin jarraitu nahi du hantxe”, azaldu digu Cristobalek.

EUSKALDUNEKIN, GUSTURA

Euskaldunek oso ondo hartu ei dute; “izugarria izan da hasiera-hasieratik zelako ondo hartu gaituzten herrialde honetan. Oso lagun onak egin ditut. Oraingo nire lantokiko


nagusiekin ere harreman ezin hobe daukat, asko lagundu didate”, azaldu digu Cristobalek.

Dena dela, egunen baten Ekuadorrera itzultzeko asmoa dute Cristobalek eta bere emazteak. “Norbere herria norbere herria da”, diosku. Baina orain-txe bertan duten erroka garrantzitsuena da seme-alabak Bergarara ekartzea.

EKUADORTARRAK IBARREAN

Cristobalek kontatu digunez, San Antonion eta Oñatin bizi diren bi bikote ekuadortarrekin harreman estua dute. Noizean behin euren etxetan elkartzen dira afaltzeko eta elkarrekin egoteko.

Dena dela, Euskal Herrian ez ei dago Espainiako estatuan adina ekuadortar.



OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Gazteen bigarren mailako taldeak Ekintzaren aurka jokatu du zapatuan, 17:00etan.

ARGAZKILARIA

FUTBOLA

Gazteen bigarren mailako taldea igoera fasea jokatzeko sailkatu da

Lehen faseko azken partidua jokatu dute bihar, zapatua, Ekintza taldearen aurka

EDU MENDIBIL

Gazteen bigarren mailako taldeak ligako lehen fasea agurtuko du bihar, zapatua, Ekintzaren aurka Ipintzan, 17:00etan. Bergararrak igoera fasea jokatzeko sailkatuta daude dagoeneko.

Juan Carlos Gomez de Segurak zuzentzen duen taldeak denboraldi ona egiten dihardu eta ligako lehen fasea bukatzeko partidu baten faltan igoera fasea jokatzeko sailkatuta dago. Bihar, zapatua, lider postuan dagoen Ekintza taldeari irabaziz gero,

lehen postua eskuratzeko aukera daukate bergararrek. Partidua, esan bezala, 17:00etan hasiko da.

Beste bi partidu jokatu dira zapatuan Ipintzan: goizean, bigarren mailako kadete taldeak Aretxabaleta hartuko du, 11:30ean. Aitor Gorosabelen mutilek lehen faseko azken partidua izango dute biharkoa. Laugarren postuan dira eta nahiz eta bihar irabazi ez daukate lehen hiruren barruan sailkatu eta igoera fasea jokatzeko.

Zapatuko futbol jardunaldiarekin bukatzeko, futbol-8ko kadete mailako nesken taldeak Uro-

laren aurka jokatu du, 15:30ean. Mikel Fernandez Pope-ren taldeak sailkapeneko goialdeko taldeekin borrokan dihardu.

GABONETAKO GAZTE TXAPELKETA

Bestalde, gazteen lehen mailako taldeak ezin izan zuen Gabonetako txapelketa eskuratu. Finalerdietan Reala kanporatu zuten bergararrek, 2-1eko emaitzarekin. Finalean, berriz, Eibarren aurka 1-0 galdu zuten David Lopez de Abetxuko eta Jose Ramon Beristainen jokalariek. Taldea bikaina aritu zen maila altuagotan lehiatzen diren bi talderen aurka.

TXIRRINDULARITZA

Aurtengo lizentziak berritzeko epea urtarrilaren 31ra arte izango da zabalik

Txirrindularitza lizentzia berritu nahi dutenek 92 euro ordaindu beharko dituzte Kutxako ondoko kontuan: 2101 0070 81 0006 7526 12. Ondoren, ordainagiria Biciprecision Igartua edo i2 kirol dendetara entregatu behar da, urtarrilaren 31 baino lehen.

KIROLDEGIA

Debagoieneko kirol txartel bateratua eta Bergarako txartela egiteko epea zabalik


Udaleko Kirol Zerbitzuak kaleratu ditu herriko kirol instalazioak erabili ahal izateko tarifak. Aurreko urteotan moduan, Debagoieneko kirol txartel bateratua egiteko aukera ere izango da. Interesatuek Kirol Zerbitzura jo beharko dute. Argibideak: 943 77 91 67.

SPINNINGA

Spinning monitorea agiria eskuratzeko ikastaroa urtarrilaren 29an Oñatin

Debarroko euskara eta kirol zerbitzuek antolatuta, lehen mailako spinning monitorea agiria lortzeko ikastaroa izango da urtarrilaren 29an Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Argibideak eta izenematea Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefonoan.

FOTOKIROLA



Markel Larrañaga, Euskadiko selekzioa

Euskadiko selekzioa ordezkatzuz, Markel Larrañagak (eskuman) Espainiako Karate Txapelketan parte hartuko du urtarrilaren 22an eta 23an, Madrilan. Euskadiko Txapelketan, kumiteetan, urrezko domina lortu zuen Markelek.

Kadete mailako mutilak eta gazte mailako nesken eskubaloia partiduak

E.M.

Bi eskubaloia partidu jokatu dira bihar, zapatua, Labegaraie-tako kiroldegian: alde batetik kadete mailako mutilen taldeak Donibane hartuko du, 16:15ean. Jarraian, gazte mailako nesken txanda izango da: Ibai Otxoak eta Ander Alvarezek zuzentzen dituzten jokalariek Pulpo taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Gazte mailako neskek sailkapeneko goialdeko postuetan ditugu: jokatu bederatzi partiduetatik sei irabazi, bat berdinu eta bi galdu dituzte berga-

rarrek. Azken partiduan emaitza deigarriarekin irabazi zuten Arrasaten: 0-35. Bihar aurkari zailagoa izango dute. Hala ere, lehen itzuleran, Zumaian, 12-16 irabazi zioten Pulpori.

KADETE MUTILEK DONIBANE BISITARI

Xabier Lijok zuzentzen duen kadete mailako mutilen taldeak Donibaneren bisita jasoko du bihar. Azken jardunaldian ustekabean galdu zuten bergararrek Elgoibarren, 23-22. Partiduko azken segundoan punturen bat eskuratzeko aukerak ihes egin zien mahoneroei.



Gazte mailako nesken taldeak Zumaia Pulpori aurka jokatu du zapatuan.

ARTXIBOA

LABEGARAIETA

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

11:30: Pirulotarrak-Fac Belengua
12:30: Belengua-Kalaveras Fac

ZAPATUAN, KANPOAN

16:00: PDS-KMP Niu Tim
17:00: Niu Tim-Egurre K. Pipe
18:00: All Blacks-Komando Arrano
19:00: Arrano-Cosa Nostra All Blacks

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Canalejas-Txipiron Mongat.
10:30: Mongat-Bayer Txipiron
11:30: Pagomendi-Errotagain A Ze Fla.
12:30: Fit Autom.-A Ze Flaxa Pagome.
16:00: Egurre-SDTNT Agirreb.
17:00: Agirrebena-Cosa Nostra Kalaveras
18:00: Kalaveras-Niu Tim Arrano
19:00: Arrano-De Resaka Pirulot.
20:00: Pirulotarrak-K. Piperrak De Resa.

DOMEKAN, KANPOAN

11:30: Ganbara-Fac KMP
12:30: KMP-Belengua Ganbara

ELKARRIZKETA

JOSE MARI ZEZEAGA/PILOTARIA

"Aspe enpresakoek ez dute hitza bete; jarraitzeko gogoz eta indarrez nago"

EDU MENDIBIL

Aspen jarraitzea espero bazuen ere, Jose Mari Zezeagari ez diote kontratua berritu. 42 urterekin, uberarrak jokatzeko sasoiarekin ikusten du bere burua. Garfe enpresan arituko da orain.

Ustekabean harrapatu zaitu Asperen erabakiak?

Bai, sorpresa izan da Asperekin ez jarraitzea. Lehen beste gauza batzuk esan zizkidaten, baina ez dute hitza bete.

Noiz esan zizuten ez zenuela Aspen jarraituko?

Azpeitian, Santo Tomas ferian jokatu nuen azken partidua. Hurrengo egunean deitu ninduten, kontratua ez zidatela berrituko esateko. Dezepzio handia hartu dut, Asperen sorreratik han egon naizelako eta jarraitzeko gogoz eta indarrez nengotelako. Baina agintariek ez dute hori ikusi...

Garferen eskaintza etorri zaizu berehala...

Gabonetan kontu horiek alde batera utzi nahi nituen, eta ondoren Garfeko arduradunak deitu zidan, eurekin hasteko. Oraindik ez dakit noiz jokatuko dudan lehen partidua. Garfek batez ere uda partean antolatzen ditu jaialdiak, Nafarroa, Errioxa eta Gaztela aldean nagusiki. Baina ez dut nahi udan egunero jokatzeko ibili. Urtean zehar joango naiz ikusten zelan nagoen.

Hogeita hiru urtez profesionaletan jardun ondoren, zer daukazu eskaintzeko?

Oraindik pilotan disfrutatzen dut. Ezinbesteko inor ez dago, baina, beste edozein ofiziotan bezala, esperientzia inportantea da pilotan ere.

Ezinbestekorik ez dago. Halere, Gipuzkoan pilotariak sortzea ez da horren erraza...

Binakako txapelketari begira eztabaida hori piztu zen. Hutsune handia dago beteteranoen eta

gazteen artean. Nire ustez, Gipuzkoa mailan, Diputazioaren alde tik gauza asko aldrebes egiten dira. Mailla txikietan oso lan gutxi egiten da, eta gaztetxoaren arteko txapelketarik ez egoteak kalte handia egiten dio pilotari.

Semea pilotari izatea nahiko zenuke?

Ibiltzen da, baina futbolearen eta beste edozein kirolearen ere bai. Inportantea da egiten duena gogoz egitea. Edozein modutan, Nagorek semea zera esaten dio: "Pilotari ona baino hobe futbolari txarra izatea". Anaia futbolaria du, eta zerbait jakingo du Nagorek...

"Garfeko arduradunak deitu zidan Gabonen ostean, eta eurekin hasteko eskaini"



ARTIBOIA



%50-eraino


Mirari
JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

75 urte hauetan **GBLHI MIGUEL ALTUNA**ren
ibilbidea egiten lagundu diguzuen guztioi:
ikasle, irakasle, langile, guraso, enpresa eta erakundeei

MILA ESKER!

Urte berri on!



Oharra:

"Bergarako Elemental: 75 urteko ibilbidea" liburua eskolako harreraren jaso ahal izango duzue astelehenetik ostiralera 08:00etatik 22:00etara".

75
urte
hezten



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA



ZUHAIZTI
taberna

Orain eguneko menuak

Astelehenetik ostiralera eguneko menuak Zuhaiztin.

Ordutegia: 12:30etik 15:00etara.

ESPALDIA, 6
BERGARA
TFNOA: 943 76 59 22

2004/2005

EUSKARA

IKASTAROAK

Eskaintza: EUSKALDUNTZE maila guztiak ALFABETATZE, EGA eta EGAtik gorakoa.

Egokitutako taldeak: guraso, merkatari, etorkin, enpresa, Bergarako euskara, etab. Multimedia gela.

Azterketak prestatzeko: EGA eta HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK. HABEren diplomak ateratzeko azterketa euskaltegian bertan.

Erritmoak: Eskarien arabeko erritmoak.
Galde ezazu!

Matrikulatzeko epea: Urtarrilaren 17tik 28ra.

Bulego Ordutegia: Goizez: 8:30-13:00 | Arratsaldez: 14:30-18:30
Ostiraletan: 8:00-15:00

16 urtetik gorakoentzat.
Bekatze sistema eta diru laguntzak ditugu.

SÍO...
BAI?

Erantzuna Udal Euskaltegian

23 urte / 43 zentro /
maila guztiak /
Ordutegi zabala /
Bekak / HABEko diplomak ...

HABEren diru laguntza.

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi, 13 | 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net

UDAL
EUSKALTEGIAK

www.udaleuskaltegiak.net

LEHIAKETA/ Amodiozko Gutunen Lehiaketak XIII. ekitaldia beteko du aurten

Amodiozko 72 gutun jaso ditu Jardun elkarteak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Aurten ere partaide asko izan da Jardun elkarteak antolatzen duen Amodiozko Gutunen Lehiaketan: 72, hain zuzen ere. Hilaren amaieran elkartuko dira epaimahaikoak sariduna zein den erabakitzeke, eta sari banaketa San Valentín egunean egingo dute.

Urtarrilaren 7an gutunak aurkezteko epea amaituta, orain epaimahaikoek erabaki behar dute zein den Amodiozko Gutunen XIII. Lehiaketaren lan irabazlea.

Jarduneko kideek jakinarazi digutenez, guztira 72 lan jaso dituzte, baita txoko ezberdin askotatik jaso ere. Bergaratik seigutun jaso dira; Debagoienetik, bederatziki; Gipuzkoatik, 45; Bizkaitik, 16; Nafarroatik, sei; Arabatik hiru eta Bartzelonatik, bi gutun. Horietatik posta arruntaren bidez 40 gutun heldu dira, eta e-postaz 32.

Idazleak ere askotarikoak izan dira. 46 emakumezkoak dira eta 26, berriz, gizonezkoak. Adinari dagokionez, idazle gazteenak 14 urte ditu eta helduenak 61. Idazleen batez besteko adina 25 urtekoa da.

Urtarrilaren amaieran elkartuko dira epaimahaiko kideak saria zeini eman erabakitzeke. Epaimahaia lau lagun hauek osatuko dute: Modesto Arrieta iazko irabazleak, Ana Urkiza idazleak, Fernando Murillo idazleak eta Asier Serrano kantari eta idazleak.

SARIAK

Sari banaketa otsailaren 14an San Valentín egunean egingo dute Jardunekoek.

Irabazleak 450 euroko saria jasoko du. Bigarrenak, berriz, 240 eurokoa. Eta bergarar onenari 150 euroko saria emango diote.



AITOR LIZARRALDE

Sari banaketa San Valentín egunean egingo dute.

*Bihar amaituko da
SMS bidez
maitasun mezuak
lehiaketara
bidaltzeko epea*

Bestalde, aurten lehen aldiz antolatzaileek 26 urtetik beherakoen artetik onenari 100 euroko saria ematea erabaki dute. Euren helburua da gazteen artean idazteko zaletasuna bultzatzea.

Azkenik, irakurle gazteek emandako beste sari bat ere banatuko dute.

SMS BIDEZKO MAITASUN MEZUAK

Gutunak jasota badituzte ere, oraindik zabalik dago SMS bidezko maitasun mezuaren lehiaketa. Beraz, norbaitek idazteko asmoa badu gogorarazi nahi diote bihar, zapatua, dela mezuak bidaltzeko azken eguna.

Partaide bakoitzak ezin izango du mezu bat baino gehiago bidali eta mezuaren ostean poltsikoko telefonoaren zenbakia eta adina jarri beharko dira.

Mezuak 605 71 24 69 telefonora edo kulturajardun@topagunea.com posta elektronikoko helbidera bidali beharko dira.

Sari hori irakurle gazteek osatutako epaimahaia emango du eta irabazleak 90 euro jasoko ditu.

Organo eta abesbatza kontzertua bihar San Pedron

I.A.

Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloko emanaldia izango da bihar, zapatua, San Pedro parrokian. Abesbatzen kantuek eta organo doinuak entzun ahal izango dituzte bertaraten direnek.

Azkoitiko, Azpeitiko eta Bergarako udalek elkarlanean Organo Erromantikoaren VI. Nazioarteko Zikloa antolatu dute. Ziklo horren baitan organo eta abesbatza kontzertua izango da bihar, zapatua, 20:00etan San Pedro parrokian.

Azkoitiko parrokiako abesbatzak, Azpeitiko Julian Barretxea abesbatzak eta Jose Luis Frantzesena organo joleak jardungo dute.

JOSE LUIS FRANTZESENA

Azkoitiko parrokiako abesbatza 32 abeslarik osatzen dute eta Azkoitiko Udala Musika Bandaren zuzendari Inazio Alberdiren gidaritzapean jardungo dute. Jaime Amenabar gazteak zuzen-

duko du Azpeitiko Julian Barretxea abesbatza.

Organo jole lanak Jose Luis Frantzesena musikari eta konposatzaile azpeitiarrak egingo ditu. Konposizio ugari eginak ditu bai musika bandendako, txisturako eta batez ere abesbatzen dako; eta konposizio sariak ere jaso ditu Frantzesenak. Azken urte hauetan Azkoitiko parrokiako organo jolea da hura.

Zapatuko emanaldian eskainiko dituzte Cesar Francken *Piece Heröicke*, Jose Luis Frantzesenaren beraren *Jasokunde Meza* eta Agur *Erregiña* eta J.Lefebure-Welyren *Sortie* piezak.

HURRENGO EMANALDIK

Organo Erromantikoaren Zikloaren barruan beste bi emanaldi izango dira: urtarrilaren 29an Jürgen Wolf organo jole alemaniarrek eskainiko du kontzertua; otsailaren 5ean, berriz, Migel Etxepare tronpeta jolearen eta Coro Saenz organo jolearen emanaldia entzuteko aukera izango da. Ekitaldi guztiak San Pedro parrokian izango dira.



BERRIGARA

Jose Luis Frantzesena organo jolea eta bi abesbatza izango dira San Pedron.

San Antonabat jaiak ospatuko dituzte asteburuan San Anton auzoan

I.A.

Datorren astelehenean, urtarrilaren 17an, San Anton Eguna denez, izen bereko auzoan jaiak ospatuko dituzte bihar hasi eta astelehenera bitartean. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte auzotarrek.

Zapatuan 09:30ean auzotarrak elkartu eta San Antonera igoko dira. 12:00etan txapligu eta suzko erruberak izango dira jaien hasiera iragartzeko eta ondoren txikiteoa egingo dute auzoan.

Arratsaldean mus txapelketa izango da 16:00etan hasita, eta ize-

na emateko ordubete lehenago Zubiberri sagardotegira jo beharko dute bikoteek. Arratsalde partean berriz ere txapliguak eta txikiteoa egongo dira. Gauetan, berriz, herri afaria egingo dute Zubiberri sagardotegian.

Domekan meza izango da 11:00etan eta Umore Ona taldeak abestuko du bertan. 12:00etarako krosa antolatu dute. Mezaren eta krosaren ostean salda eta txorizoa banatuko dituzte.

Eguerdian herri kirolak eta jolasak (kaskara jokoa, txerria harrapatzea...) egongo dira. Era berean, Ikastolako dantza taldekoek dantza saioa eskainiko dute.

Domekako ekitaldiak eguerdiko txikiteoarekin amaituko dituzte San Anton auzokoek.

SAN ANTON EGUNA

Astelehena da San Anton Eguna, eta, astebururako antolatutako ekintzen ostean, egun horretan ere izango da jai girorik San Anton auzoan.

Anton deunaren basilizara igoera egingo dute 10:30ean eta santuari eskaintza egingo diote eliztarrek. 11:00etan meza egongo da, eta, jaiak amaitzeko, mezaren ondoren erromeria giroan salda, txorizoa eta ardoa banatuko dituzte.



MIGON

San Anton basilizan meza izango da domekan eta astelehenean.

E, TXO!

GUREGAIK/ POLTSIKOKO TELEFONOAK

Zer egin behar da telefonoa lapurtuz gero?

IRATI AGIRREAZALDEGI

Leku guztietara eramaten dugu poltsikoko telefonoa. Ongi dakigu mezuak bidaltzen, argazkiak ateratzen eta beste hainbat gauza egiten. Baina badakigu zer egin behar den poltsikokoa lapurtuz gero?

Euskal Herrian 8 eta 13 urte arteko hiru gaztetxotatik batek poltsikoko telefonoa du, eta bati baino gehiagori lapurtuko zioten inoiz poltsikokoa.

Horrelako egoera batean egonez gero, poltsikoko telefonoa berehala blokeatu behar da. Nork bere konpainiara deitu eta SIM eta IMEI zenbakiak ematea nahikoa da horretarako.

SIM zenbakia telefonoaren bateriaren alboan dago. IMEI zenbakia, berriz, baterian begiratu ta eskura daiteke. Telefonoaren kaxan edo fakturan ere agertzen dira bi zenbakiok. Datu horiekin konpainiak telefonoa ez erabiltzeko eran utziko du. Ezin izango da bertatik deirik egin, nahiz eta beste txartel bat ipini.

Lapurtu beharrean jabeak galdu badu, SIM txartela blokeatzeko aukera dago. Telefonoa ezin izango da erabili, baina ez da erabat blokeatuta egongo. Berriz ere erabili nahi izanez gero, txartel berri bat jar daiteke edo operadoreari blokeoa kentzeko eskatu.

Beraz, komenigarria da beti telefonoaren SIM eta IMEI zenbakiak eskura izatea.



Poltsikoko telefonoa lapurtuz gero konpainiara deitu behar da.

GAZTE INFORMAZIO GUNeko EGUTEGIA KALEAN DA

Jadanik kalean da Gazte Informazio Guneko 2005eko egutegia. Maria Cossiok diseinatu du aurtengo egutegia. Nahi duenak herriko hainbat lekutan eskuratu ahal izango du: udaletxean, liburutegian, ikastetxeetan, KZ gunean... Bestalde, gazte bulegoan bertan ere egongo dira.



GARRAIO GASTUETARAKO DIRULAGUNTZAK

EAEko unibertsitate ikasleek dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte garraio gastuak ordaintzeko. Eskabideak urtarrilaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dituzte unibertsitatean bertan. Argibide gehiago nahi duenak honako telefonoetara dei dezake: 945 01 83 08 edo 945 01 82 99.

MUSIKA KONPOSIZIO LEHIAKETA

Pablo Sorozabal musika konposizio lehiaketako epea zabalik dago urtarrilaren 31ra arte. 1969az geroztik jaiotakoek nahi beste lan aurkeztu ahal izango dituzte. Lanek bakarka egindakoak eta originalak beharko dute izan. Hari-laukoteendako konposizioak izango dira, eta ez 25 minututik gorakoak. argibide gehiago 943 48 27 63 telefonora deituta jaso daitezke.

LOTSABARIK/ Amaia Otxoa

“Amak dio burugogorra naizela”

I.A.

Gazteak konbentzitzea zaila izaten bada ere, Amaiak lehenengoan esan dio baietz gure gonbitari. Erantzunak ere zuzen eta zorrotz bota dizkigu betiere irribarrea ahoan duela.

- **Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?**
Gazteendako gauza gehiago ipiniko nituzke. Esaterako, irteerak antolatu.
- **Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?**
Euskal presoak Euskal Herri- ra ipintzen duen pegatina bat eta bestea Berriakoa.

- **Telebistako saiirik gorrotagarriena? Eta gustukoena?**
Salsa Rosa gorroto dut, ez zaidalako gustatzen jendearekin duten jarrera. Gehien gustatzen zaidana, berriz, *Goenkale* da; egunero ikusten dut.
- **Pertsonaia higuingarriena? Eta gustukoena?**
Higuingarriena Maria Teresa Campos. Gustukoena, berriz, Angel Alkain. Oso aktore ona da.
- **Zerk amorratzen zaitu?**
Horrenbeste gerra egoteak
- **Zer estimatzen duzu besteengan?**
Jatortasuna eta norberari ulertzeko ahalegina egitea.
- **Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?**

- Lagunei eta etorkizunean lan egoki bat izateko prestatzeari.
- **Zure bertute bat? Eta akats bat?**
Bertutea alaitasuna. Akatsa, berriz, burugogorra izatea. Amak behintzat hori dio.
- **Zelan ligatzen duzue gazteok?**
Jaietan, baina Bergaran orduan ere zaila da.
- **Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?**
Jatorra eta itxuraz polita balitz, ba hobe.
- **Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?**
Lagun-min batekin, Egiptora edo Brasilerara; urrutira.
- **Etorkizunerako amets bat?**
Telesaio-batean lan egitea.



ADINA: 15x urte • IKASKETAK: DBHko 4. maila • ZALETASUNAK: Atletismoa eta lagunekin irtetea • LIBURU BAT: Xabier Mendigurenen *Berriro igo nauzu* • FILM BAT: *Peter Pan* • MUSIKA TALDEA: Berri Txarrak • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA/ Joseba Laso



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Leiho hauek kale berean daude. Non?

GALDEDEBALDE

1.

Udalak egindako azterketaren arabera zenbat etorkin inguru dira herrian?

- A/ 600.
- B/ 800.
- C/ 300.

2.


Zein organo jolek egingo du emanaldia zapatuan San Pedron?

- A/ Juan Luis Ansorena.
- B/ Jose Luis Frantzesena.
- C/ Coro Saenz.

3.

Zein enpresatan arituko da Jose Mari Zezeaga pilotaria?

- A/ Garfe.
- B/ Asegarce.
- C/ Aspe.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

EXPERTA RUIZendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Experta! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: Errotalde. / Galde debalde: 1-B, 2-B, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Cojonudos esparragoak

8-12 ale, 325 g

1 €

166 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



BERGARAROSPETSUAK

Telesforo Maria Monzon Olaso

KOLDO PEREIRA

Tadeo Monzon eta Maria Olaso Mendizabalen bigarren semea. Bergaran jaio zen 1826ko urtarrilaren 5ean. Zuzenbide Zibil eta Kanonikoko doktoretza egin zuen Madrilgo Unibertsitatean. Espainiako Historia Akademiako urgazle eta gorteetako diputatu izan zen, Madrildik. 1859an ezkondu egin zen Maria Lardizabal Altuna Otxalararekin. 1865ean Bergarako Errege Mintegiko zuzendari izendatu zuten.

Garai hartan kultur alorrean izandako gertakarien artean, egungo eraikin ederraren proiektua egin eta fatxada eraiki izana nabarmendu behar ditugu. Gipuzkoako ahaldun nagusia eta bere jaioterriko alkatea izan zen hainbat aldiz, eta ondorioz, 1866ko maiatzaren 24an, Bergarako herriko Seme Kuttun izendatzea erabaki zuen Udalak. Erabakian zehazten denez, aipatu dugun tituluaz gain, ohorezko makila eman zioten, esker onez, bergararren oparotasunaren eta gainerako interes publikoen mesedetan egindako lan handiarengatik.

1889ko azaroaren 17an zen, 63 urte zituela.

Herriko Seme Kuttun izendatu zuen Bergarako Udalak 1866ko maiatzaren 24an



Olaso Dorrea.

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

Maxim's

943 76 20 61
BERGARA

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Elementaleko ikasleak Valentzian

Bergaran lanbide heziketa hasi zeneko 75. urteurrena bete berri da. Hori ospatzeko, Miguel Altuna ikastetxeak *Bergarako Elementala: 75 urteko ibilbidea* izenburuko liburua kaleratu du.

Ikastetxearen ibilbidean hainbat data esanguratsu izan dira urte hauetan guztietan. Esate baterako, 1972an Administrazioa ikasketak eskaintzen hasi zen ikastetxea, eta emakumeei ateak zabaldu, ordura arte gizonen arteak bakarrik ari baitziren Elementalean. Administrazioan ez ezik, gainerako espezialitateetan matrikulatzen hasi ziren emakumeak.

Alboko argazkia 1975. urtekoa duzue. Ikas bidaian Valentziara joandako ikasle taldea agertzen da bertan. Ezkerretik eskumara hauek dituzue:

Zutik: Valentziako enpresa bateko ordezkaria, Jose Luis Moreno irakaslea, Tere Olabarria, Mari Karmen Eguren, Maria Jesus Azkarate, Txaro Eguren, Izaskun Etxebarria, Lourdes Zeziaga, Edurne Sotil, Eva Aiastui, Anabel Altuna, Maria Jesus Olabarria, Nekane, Pili Unamuno eta Arantza Irazola.

Makurtuta: Nati Balentziaga, Marisa Ostolatza, Lore Arregi, enpresako langilea eta Alfonso Romera irakaslea.

Jarrita: Izaskun Murgizu, Begoña Alonso, Lourdes Garitano, Maria Jesus Berraondo eta Maria Jesus Arando.

Argazkia: Miguel Altuna ikastetxea



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

GOIERRI AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

U
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005ko urtarrilaren 14a / 218. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Txistu kontzertua egingo dute etzi, domeka, osoko bilkuren aretoan

AINTZANE IRIZAR

Berez Gabonetako txistu kontzertua zena urtarrilean egiten dute azkeneko urteotan; aurten ere horrelaxe egingo dute. Bihar, zapatua, izango da kontzertu hori, mezaren ondoren; abesbatzak eta metal boskoteak ere parte hartuko dute.

AINTZANE IRIZAR

Emanaldi berezia bihurtu da Antzuolan urteroko txistu kontzertua. Gabonetako kontzertu bezala hasi zutena urtarrilean egiten dute azkeneko urteotan. Horrela, herriko musikariek ongiatorri berezia egiten diote urte berriari.

Txistuak indar berezia du herrian, baina jaietan eta domeka goizetako kalejiran, batez ere, entzun izan ditugu. Abesbatza, berriz, mezetan, bereziki. Kontzertu horrekin txistularien zein abesbatzaoren lanaz beste era batera gozatzeko aukera eskaintzen zaigu.

Etzi, domeka, egingo dute aurten emanaldia, mezaren ondoren, eguerdi partean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.



Txistulariekin batera, Antzuolako Abesbatzak eta Bergarako Metal Boskoteak parte hartuko dute.

Hantxe, Txistulari Taldearekin batera, Antzuolako Abesbatzak eta Bergarako Metal Boskoteak ere parte hartuko dute. Asteotan entsegutan ibili dira, eta zehaztuta dute dagoeneko domekako kontzerturako egitaraua.

KONTZERTUKO EGITARAUA

Hona hemen domekako kontzertuaren egitaraua: *Goizeko izarra* (Jose Mari Gurrutxaga), *Amayur* (Joakin Iruretagoiena), *Atso Zalduteria* (Raimundo Sarriegi), *Minueto* (V. Monzon), *Tanda de*

danzas (Manuel Delgado), *Mendi aldera* (Isidro Ansorena), *Agur Donibane* (Luis Mariano), *Mendian gora* (Xabier Amuritza eta Imanol) eta *Oi ama Euskal Herri* (herrikoia eta Benito Lertxundiren ahotsan entzun izan duguna).

HERRITARREN HITZA / Karmele San Sebastian • Etxekoandrea

Etxekoandreentzat, noizko gizarte segurantzaz?

Gizartea asko aldatu da, ez dago dudarik, eta emakumeen jarrerak zerikusia handia dauka. Gaurko emakume gehienek pentsaera ezberdina da adinean aurrera goazenean ondoan; ez dute etxekoandre bakarrik ikusten euren burua, lanbide askotan dihardute. Txalogarria benetan. Ohiokoak dira, hala ere, lanpostu berdinetan emakume eta gizonen artean dauden ezberdintasunak: postu berean, antzik ere ez daukaten soldadak. Hau ez da bidezkoa.

Komentario hauek entzutean, galdera hauek sortzen zaizkit: emakumeen artean ez dago

desberdintasunik? Bai, eta galanta, gainera. Gaur, etxetik kanpo lan egiteko aukerarik ez daukan emakume asko ari da etxean lanean. Beste batzuk, berriz, hala aukeratu dutelako; ume, gaitxo, guraso edo adinekoak zaintzeko, egoitza edota haurtzaindegira eraman barik; horrek dakarren gastu eta loturarekin.

Eta hemen dago gakoak. Etxean gelditzen den emakumeak ez dauka kotizatzerik, ez



"Etxean gelditzen den emakumeak ez dauka kotizatzerik"

gaixo edo zaharren zaintzaile gisa, eta are gutxiago, etxekoandre lez; ez dago ezer erregulatuta. Ondorioa, ulertterraza da: kotizatu gabe ez dago jubilatu pensiorik jasotzerik. Hau ez da desberdintasuna?

Arazo honi buruz, inork ez du deus esaten. Administrazioa isilik, eta nik dakidala, Emakunde ere bai. Goraipatzekoa da familia-ko ez den adinekoak ekartzeagatik etxera administrazioak

ordaintzea, zer besterik, ondo merezia daukate, baina, etxekoak zaintzen dituenari, eskerrik askorik ere ez. Bitartean, komunikabideetan irakurtzen dugu gastu soziala disparatu egin dela, honen arrazoia andreak kanpoan lanean jardutea dela.

Emakunde, emakume langileekin gogoratzen da. Besteok alperrak ote? Andre asko bizi dela egoera larrian biolentzia tarteko dela, eta hori duda barik, lehentasunezkoa izango da, baina beste hau ere norbaitek astindu beharko du. Nire ustez, bada Emakundek egitekoa, zahartzarora duintasunez eta lasaitasunez bizitzeko.

LABUR

Sahararako materiala batzen dihardute

Anelkarrek bultzatuta, Sahararako materiala batzen dihardute herrian. Atuna, azukrea eta konpresa paketeak batu nahi dituzte. Horretarako, hainbat kaxa jarri dituzte Eroskin, Juanitanean, eskolan eta udaletxean. Hilaren 17ra arte dago gauza horiek lagatzeko epea.

Ipuin kontalaria bihar, zapatua, Udal Liburutegian

Bihar, zapatua, ipuin kontalaria izango dugu Udal Liburutegian, 18:00etan. Maite Franco kontalaria etorriko da, eta hainbat ipuin entzuteko aukera izango dute bertaratzen diren umeek. *Ixone ixilik* izeneko liburuaren egilea da, hain zuzen ere, Maite Franco.

Gaztegunea bihar, zapatua, zabalduko dute berriro

Gabonetako oporraldien ondoren, Gaztegunea aurreko asteburuan zabaltzekoak ziren arren, hainbat arazo tarteko, azkenean, oraingo asteburuan zabalduko dute. Bihar, zapatua, izango dute gaztetxoek Gaztegunera berriro joateko aukera. Ohiko ordutegia izango du aurrerantzean ere.

Hil bukaeran inauguratuko dute haurreskola

Haurtzaindegiko lanak bukatu dituzte dagoeneko; orain, altzariak eta eskolako materiala jartzea besterik ez da geratzen. Horrela, Udaleko arduradunek espero dute otsailean haurtzaindegia martxan jartzea. Urtarril bukaeran egingo dute inaugurazio ekitaldia, baina oraindik ez dute eguna zehaztu.

ELKARRIZKETA

OIER PEÑAGARIKANO/EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ-KO KIDEA

“Aurtengo gure erronka nagusia izango da herriko osasun zerbitzua euskalduntzea”

A.I.


Euskal Herrian Euskaraz erakundearen 25. urteurrenarekin bat eginez, Antzuolan talde berria sortu dute. Abenduaren 27an egin zuten aurkezpen ekitaldia. Taldeko kide Oier Peñagarikanoren berba egin dugu.

Zelatan sortu duzue taldea herrian?

Beharra ikusten genuelako; alde batetik, ikusten dugu azkenaldian gaztetxoek geroago eta gehiago jotzen dutela gaztelera. Bestalde, kanpotik geroago eta jende gehiago dator eta ardu bat bageneukan. Horrela, talde bat elkartu eta Euskal Herrian Euskaraz sortu genuen.

Zenbat lagunek diharduzue lanean?

Momentu honetan sei bat lagunek dihardugu; dena dela, atek irekita daude nahi duen guztiak parte hartzeko. Oraindik ez dugu egunik eta ordurik jarri batzarretarako, baina egingo dugu deialdia. Borroka honetan denendako tokia eta denon beharra



A.I.

dago. Bestalde, aipatzekoa da gure asmoa dela herri mailako euskalgintza taldea sortzea. Idolaz euskara elkarrekin, Udala eta euskararen alde lan egin nahi duten guztiak talde bat osatzea nahiko genuke; horrela, indar handiago hartuko genuke guztiok. Bergaran badugu horren adibi-

dea: Jardun, EHE, AEK eta Udal Euskaltegia batu eta hainbat ekimen antolatu izan dituzte. Proiektu hori aurrera ateratzea da gure helburuetako bat. Ea otsailean horretan lanean hasten garen.

Non daukazue egoitza?

Udalarekin harremanetan jarri ginen bulego bat eskatzeko,

baina ez digute eman; esan digutenez, ez daukate lokalik lagatzeko moduan. Ea laster zerbitzu lortzen dugun.

Zein da zuen helburua?

Nazio mailan, EHEren helburua da euskararen benetako ofizialtasuna lortzea eta euskaldunon eskubideak bermatzea.

Zuen lehentasunak herri mailan zeintzuk dira?

Herri mailako azterketa bat eta balorazioa egin ondoren, gure lehentasunak zehaztu ditugu eta urte osorako plangintza egin dugu. Horrela, aurtengo gure erronka nagusia izango da mediku euskalduna lortzea edo daukagun medikua euskalduntzea. Gure ustez, horrelako zerbitzu garrantzitsu baten euskarak tokirik ez izatea larria da. Gainera, kontuan hartuta Antzuola nahiko herri euskalduna dela (%80 euskaldunak), euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko lan egingo dugu.

Ekimenik epe laburrera?

Hilaren 22tik martxora arte sinadurak batzen ibiliko gara, osasun zerbitzu euskalduna eskatzeko.

UDAL LIBURUTEGIA

Euskadiko Liburutegien Sarean dago gurea

AINZANE IRIZAR

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren barne dauden udal liburutegien sarea martxan jarri du; Antzuolako ere sare horren barruan egongo da.

Liburutegia sare horretan sartzeak hainbat aldaketa ekarri dizkio liburutegiaren eguneroko funtzionamenduari. Batetik, aurrerantzean bazkide guztiak txartela izango dute; gehienek dagoeneko

jaso dute euren etxean txartel hori. Bestalde, maileguz arauak ere aldatu egin dira; hemendik aurrera, liburuak 15 egunerako hartu ahal izango dira, eta bestelakoak zazpi egunerako. Kopuruari dagokionez, berriz, hiru liburu eta bestelako hiru material hartu ahal izango dira, gehienez.

TXARTEL BAKARRA

Sarean dauden liburutegietako bazkideek, txartel bakarrarekin, sareko liburutegi guztietara sar-

tzeko aukera izango dute. Horrela, edozein liburutegitan materiala hartzeko aukera izango dute.

Gainera, webgune bat ere badago zein liburutegitan zein liburu dagoen begiratu ahal izateko. www.euskadi.net/katalogobateratua helbidean informazio zabala aurkitu ahal izango dugu. Webgune horretan ibili ahal izateko, pasahitza sartu beharko dute erabiltzaileek. Informazio gehiago nahi izanez gero, liburutegira bertara jo dezakezue.

ARDURADUN BERRIA

Aldaketa horiekin batera, beste aldaketa bat ere izan dugu; azkeneko urteotan izan dugun behin-behineko arduradunari, Lourdesi, bukatu zaio bere lanaldia, eta Lierni Legorburuk berrituko hartu du bere lanpostuaren ardura. Urtariletik aurrera liburutegiak izango duen ordutegiaren berri ere eman digute; astelehenetik eguenera 16:45etik 19:30era eta egubakoitzetan 16:45etik 19:00etara egongo da zabalik.

LABUR

Futbol talde nagusiak kopa jokatuko du

Bigarren erregional mailako taldeak Federazio Kopa jokatuko du datozen hilabeteotan. Aurreko asteburuan zuen igoera faserako sailkatzeko azkeneko aukera, baina ezin izan zuen Zestoaren aurkako partidua irabazi; bina egin zuten. Beteixok eta Xabi Azkaratek egin zituzten Antzuolaren golak.

Lagun Onak, Legazpiko Gaztetxea, Gazteak eta Eibartarrak sailkatu dira igoera faserako.

KZGunea bi astean behin bakarrik zabalduko dute

Aurrerantzean bi astean behin bakarrik zabalduko dute KZGunea, Orlanen. Hilabete baten goizez eta hurrengoan arratsaldean egongo da zabalik, eguenean, hain zuzen ere.

Hil honetan, urtarrilean, hilaren 13an zabaldu zuten, eta 27an ere zabalik egongo da, 09:00etatik 13:00etara.

Otsailean, berriz, arratsaldean zabalduko dute, 16:00etatik 20:00etara.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Urtarrilak 15
16:00: Antzuola-Axular (Gazteak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Zestoa 2 Antzuola 2 (2. erreg.)
Eibartarrak 4 Antzuola 2 (Gazteak)
Antzuola 2 Eibartarrak 1 (Kadeteak)
Elgoibar 2 Antzuola 0 (Neskak)

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
Paper margotuak
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatze eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005ko urtarrilaren 14a / 211. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Goibeko Kultura Elkartearen aurtengo kanpainan 50 elgetar egin dira bazkide

IRATI AGIRREAZALDEGI

Goibeko Kultura Elkartek 50 bazkide berri lortu ditu urtarrilean egin duen kanpainan, beraz, 180 ditu orain. Oraindik nahi duenak bazkide egiteko aukera du. Bazkideek, besteak beste, deskontuak izango dituzte Espaloiko ekintzetarako sarrerak erosterakoan.

Bazkidetza kanpaina ipini du abian Goibeko Kultura Elkartek urtarrilean. Azken hiru urtetan 130 bazkide izan ditu elkartek, baina kanpaina hasi denetik 50 elgetarrek eman dute izena.

Helduek 35 euroren truke jaso dute bazkide txartela. Trukean, Espaloian egiten diren ekintzetarako sarrerak merkeago erosi ahal izango dituzte baita Asteleheneko Goienkariko harpidetza ere. Bestalde, aurren lehenengo aldiz, haurrengana ere zabalduko da bazkidetza. 10 euroren truke bazkide izango dira eta haiek ere deskontuak edukiko dituzte. Baliteke datorren urtean familiek ere bazkide egiteko aukera izatea.

Bazkide egin nahi dutenek herriko tabernetan edo Espaloian



Gabonetan Espaloian egindako herritarren jaialdia oso arrakastatsua izan zen eta jende askok hartu zuen parte.

aurkituko dituzte horretarako paperak. Lehendik bazkide direnei, berriz, urtarrilean kobratuko zaie kuota, eta txartela Espaloian jaso beharko dute.

BALORAZIO POSITIBOA

Espaloia kafe antzokia zabaldu zutenetik lehen balorazioa egin zuten abenduan arduradunek eta oso balorazio positiboa izan zen.

"Formulak funtzionatzen du: taberna eta jatetxea ondo doaz eta horrek laguntzen du kulturako zuloak tapatzen. Parte-hartzea handia izan da bai antzerkietan,

Lehendik bazkide direnek Espaloia aretoan jaso beharko dute txartela

bai hitzaldietan, baita film emaldietan ere", esan zuten.

Kultura programazioan 18.000 eurotik gora gastatu dituzte eta ia 4.000-5.000 lagun bildu dira.

Bide beretik jarraitzea da euren asmoa, eta datozen hilabeteetan ez da ekintzarik faltako.

HURRENGO EKITALDIAK

Gaur, Danbaca musika lehiaketako finala izango da 22:30ean Espaloian, eta zapatu gauerako Polito Ibañez kubatarraren kontzertua dago iragarrita.

Bestalde, eguenean 20:00etan Jon Abrilen Txinari buruzko diapositiba emanaldia izango da.

Urtarrileko ekitaldi nagusia Gariren kontzertua da, hilaren 21ean izango dena.

Otsailerako eta martxorako ere antolatuko dute ekitaldirik.

HERRITARREN HITZA / Ana Gillegi • Kazetaria

Legez kanpoko adopzioak

2004ko azaroko arratsalde baten etxeko telefonoan norbait deika. Beso artean dudan alabatxoa ohean etzaten dut eta banao.

Elkarrizketa benetakoa da Moztu egin ditut berak niri eta nik berari zuzendutako biraokak.

- Arrasti on, Ana Gillegi ?

- Bai halaxe da.

- Anichi elkartekoa?

- Bai hori da.

- Begira ba, 58 urte ditudan emakume bat naiz eta Txinan adoptatu nahiko nuke.

- Ba sentitzen dut baina

Txinak ez du onartzen 55 urte baino gehiago duen pertsonen eskaririk.

- Hori entzun dut, baina neskaitila txinatar bat izateko irri-kaz nago, hain di-ra exotikoak, begi horiek... ez dakit zer duten, horrela-ko bat ikusi dut Castron asteburuan eta...

- Barkatu andrea baina adin horrekin hasteko ezingo zenuke eta...

- Badakit zer esan behar didazun baina ez dut diputaziora joateko asmorik paper ofizialik egitera, ez bainaiz ondo moldatzen beraiekin.



"Umeek dute gurasoak izateko eskubidea, ez alderantziz"

duzu. Ez nik ezta nire elkarteak ez dizugu lagunduko legez kanpoko adopziorik egiten.

- Andrea, adinagatik ezin duzula hori argi dago, baina edozein adopzio egiteko, derrigorrez eskatu behar diozu Foru Aldundiari egokitasun ziurtagiria.

- Hori ez da horrela, momentuan dirua dut ordain-du behar zaionari ordaintzeko...

- Nahiko esan

- Hori ez da legez kanpoko! Goseak baino hobe leudeke gurekin...

Harrituta? Ba ni ez. Egunetik egunera kasu gehiago daude; "goseak baino gurekin hobe" bezalako esaldiak ugarituz doaz eta pentsaera hauek dituzten pertsonak, umeak ez dituzte maite; umeak objektu soilak bihurtzen dituzte. Munduaren alde honetan dena nahi dugu, baita guraso izan, kosta ala kosta. Gurasoak ez dugu seme alabak izateko "eskubidea". Adoptatuak izan edo ez umeek dute gurasoak izateko eskubidea, ez alderantziz.

LABUR

Azoka txikian 1.000 euro jaso zituzten ekaineko jairako

Abenduaren amaieran Eskola Txikian Jairako dirua biltzeko azoka txikia egin zuten Elgetako plazan. Umeek egin zituzten dendari lanak eta gutxira 1.000 euro jaso zituzten ekainean egingo duten jairako. Antolatzaileek esan digutenez, jostailuak, liburuak eta bideoak saldu ziren gehien. Eskerrak eman nahi dizkiete azokarako gauzak emanez edo erosketak eginez parte hartu duen jendeari. Datozen ekintzetan parte hartzera ere gonbidatu nahi dituzte.

LIBURUA

Juan Cruz Juaristiren Ruandako bizipenak liburu batean jaso dituzte

I.A.

Elgetan apaiz diharduen Juan Cruz Juaristi zarauztarrak Ruandan bizitakoak liburu batean jaso eta argitara eman dituzte. Gaur bertan aurkeztuko dute liburu, Orion, eta aurkezpenaren liburuaren egile Rikardo Uzkudun ere izango da.

Gaur egun Elgetako parrokiako apaiz lanetan dihardu Juan Cruz Juaristik. Baina misiolari moduan 36 urte eman zituen Ruandan.


Orain, Rikardo Uzkudun oriotarrak Juaristiren Ruandako bizipenak liburu batean jaso ditu.

Gaur bertan aurkeztuko dute Orion Ori-Zautz Ruandaren aldeko gobernuz kanpoko erakundeak kaleratu duen liburu.

HISTORIA ETA ELKARRIZKETA

Juan Cruz Juaristi eta Ruanda: Gogoia Afrikaren bihotzean da liburuaren izenburua, eta bi zati ditu. Lehenengoan Juan Cruzek berak idatzi eta Ricardo Uzkudunek laburtu eta euskaratutako Ruandako historia agertzen da. Bigarrenean, berriz, misiolariari egindako elkarrizketa luzea.

Liburu gaur aurkeztu eta jende artean zabaltzea da asmoa. Horretarako Elgetan elizan bertan eskuratu ahal izango da eta baliteke salgai ere ipintzea.



Juan Cruz Juaristi, Elgetako apaiza.

KIROLAK

Ordutegia egongo da frontoiko argia pizteko

I.A.

Pilotalekua arratsaldean erabilera liberako lagatzea erabaki du Udalak. Horretarako ordutegi bat zehaztu dute eta denbora tarte horretan pilotalekuko atea irekita izango da eta baita argia piztuta ere. gainontzeko orduetan erabilteko alokatu egin beharko da.

Udaletik jakinarazi digutenez, iazko abenduaren 13an hasi eta aurtengo apirilaren 3ra bitartean pilotalekuko argiak piztuko dituzte astean zehar eta jaiegunetan arratsaldean.

Horretarako, ordutegi zehatz bat ipini dute: astelehenetan 16:30etik 18:30era; martitzenetan, eguaztenetan eta eguenetan

16:30etik 18:00etara; eta barikuetan eta asteburuetan, 17:00etatik 19:00etara.

Zehaztutako ordutegi horren barruan edozeinek erabili ahal izango du pilotalekua jolasteko edo kirola egiteko.

Hala ere, arduradunek argi utzi nahi dute denbora tarte hori erabilera librekoa izango dela. Beraz, pilotalekua ezin izango dute pertsona gutxi batzuek euren jolasetarako soilik hartu.

Ordutegi horretatik kanpora pilotalekuak hutsik egon beharko du. Izan ere, erretserba egina dutenek bakarrik erabili ahal izango dute.

Pilotalekua alokatu nahi dutenek Udal Kirol Zerbitzura edo Kiroldegira jo beharko dute informazio eske.

ELKARTASUNA

Udalak 1.280 euro inguru banatu ditu gizarte erakundeei laguntzeko

I.A.

Gobernu batzordeko azken bileran adostu zuen Udalak gizarte zerbitzuekin zerikusia duten hainbat erakunderi eta Hirugarren Munduarekin lan egiten dutenei dirulaguntzak ematea.

Gizarte arloan gaixo psikikoekin lanean diharduen Agufes elkarteak eta adimen urrikoekin


jarduten duen Atzegik 277na euro jasoko dituzte. Kontuan hartu dute, esaterako, orain dela gutxi Agufesek Bergaran bulegoa ireki duela.

Txernobil elkarteari 63 euro emango dizkiote. Elkarte horren bitartez azken urteotan umeren bat ekarri izan dute herrira udan, euren herrialdeetan dituzten arazoetatik ihes egiteko.

HIRUGARREN MUNDUA

Dirulaguntzak jasoko dituzte baita ere Hirugarren Munduko herrialdeengatik lanean diharduten hainbat taldek.

Oscar Romero elkartearen dako 171 euro izango dira; beste horrenbeste euro bideratuko dituzte Haitiko eta Dominikar Errepublikako uholdeengatik kalte-tutakoei laguntzeko.



Udal Pilotalekuko ordutegia zehaztu dute erabilera liberako.



Alex Arantzabal eta Alberto Telleria berriz txapelak

Gabon Zahar egunean jokatu zen heteranoen lau t'erdiko txapelketako finala. Aurten iazko txapelak berriz ere izan dira irabazle. Arantzabalek eta Telleriak 22 eta 17 irabazi zuten partida Moralesen eta Arantzetaren aurka. Egun berean umeen pilota txapelketako finalak ere izan ziren jokoan. 42 ume hartu zuten parte eta irabazleak honakoak izan ziren: Josu Zezeaga, Maitena Mañarikua, Mikel Beretxinaga, Eneritz Larrea eta Mikel Agirregomezkorta. Sariak Aitor Elkoro eta Jose Mari Zezeaga pilotariak banatu zituzten./I.A.

LABUR

Goibeko elkarteko loterian jokaturako dirua kobratzeko aukera gaurtik aurrera

Goibeko elkarteko loteria erosi zutenek jokaturako dirua bueltan jasotzeko aukera izango dute. Gabonetako loteriako sari nagusiaren zenbakia bezalaxe, Goibekok saldutakoa ere zero zenbakian amaitu da. Dirua kobratzeko, gaur hasi eta urtarrilaren 29ra artean barikuetan 19:00etatik 20:30era bitartean eta zapatuetan 11:00etatik 12:30era artean joan beharko da Espaloiko sarrerara.

KZ guneko irakaslea urtarrilaren 19an goizez egongo da zalantzak argitzeko

KZ guneko arduraduna hamabostean behin izaten da Elgetako gelan, nahi dituenari azalpenak emateko. Orain artean arratsaldean egoten bazen ere urtarrilaren 19an goizez egongo da 09:00etatik 13:00etara bitartean. Otsailean, berriz, arratsaldean 16:00etatik 18:00etara, otsailaren 2an eta 16an, hain zuzen ere.

Pili Arinek irabazi zuen Gabonetan egindako zuhaitzen lehiaketa

Gabonetako zuhaitzen lehiaketan guztira 22 lan aurkeztu dituzte. Partaideak askotarikoak izan dira, bai helduak eta baita umeak ere. Erabilitako materialak ere asko: kartoia, alanbrea, burdina... Irabazlea Pili Arin izan da; landareekin egin zuen zuhaitza.

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behea. 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albitari ofiziala) 609 54 16 13

IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behea. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69

TRIPALDI Enrike Justo Garate 1. 943 76 70 76

DIETISTAK

ALBERDI Mireia Olanar etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA

Ibargarai 44, BERGARA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

LOPEZ DE MUNAIN Francisco J. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

MASAILARIAK

AZPEITIA Irune Ibargarai 44, behea. 943 76 73 43

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

OXIRONDO KONTSULTATEGIA Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50

OTORRINOLARINGOLOGOA

IGARTUA ALMANDOZ Julian Barrenkale 35-1 ezkerre. 943 76 70 91 630 653 202

PODOLOGOAK

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

SAMADHI YOGA Masterreka 13, behea. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.